Foru Administrazioak emandako dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 16. artikuluak eta Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 23ko 34/2010 Dekretuak onartutako Dirulaguntzen Araudiaren 52.2.e) artikuluak ezarritako ondorioetarako, Foru Aldundiaren dirulaguntza hau bateragarria izango da onuradunak helburu berberarekin jaso ditzakeen gainerako dirulaguntzekin, laguntzekin, sarrerekin edo baliabideekin, betiere hitzarmen honen xedea garatzeko eta betearazteko; horiek bestelako administrazioek eman ahalko dituzte edo erakunde publiko edo pribatuek, estatalek, Europar Batasunak edo nazioarteko erakundeek.

A los efectos del artículo 16 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral y del artículo 52.2 e) del Reglamento de Subvenciones aprobado por el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 34/2010, de 23 de marzo, la presente subvención foral será compatible con cualquier otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, que la beneficiaria recibiera de cualquier Administración o ente público o privado, estatal, de la Unión Europea o de organismos internacionales para el desarrollo y ejecución del objeto del Convenio.

LORRA SOZIETATE KOOPERATIBOAK Ingurune Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko Sailari jakinarazi beharko dizkio hitzarmen honetan jasotako jardueretara zuzendutako bestelako dirulaguntzak edo laguntzak.

LORRA SOCIEDAD COOPERATIVA deberá informar al Departamento Medio Natural y Agricultura de la obtención de otras subvenciones o ayudas destinadas a las actividades recogidas en el presente convenio.

Dirulaguntzei buruzko Foru Arauaren 18.3 artikuluak ezarritakoari jarraiki, emandako dirulaguntzaren zenbatekoa, bera bakarrik edo beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin batera, ezin da izan, inola ere, dirulaguntza jasotzen duen jardueraren kostua baino gehiago.

Conforme al artículo 18.3 NFS, el importe de la subvención concedida en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, supere el coste de la actividad subvencionada.

BEDERATZIGARRENA.- DIRULAGUNTZAREN ORDAINKETA ETA BERMEEN ARAUBIDEA

NOVENA.- PAGO DE LA SUBVENCIÓN Y RÉGIMEN DE GARANTÍAS

Dirulaguntzaren ordainketa osoa hitzarmena sinatu eta hurrengo hilabetean egingo da.

El pago total de la subvención se realizará en el mes siguiente a la firma del convenio.

2024ko martxoaren 1a baino lehen, LORRAK gastuen, fakturen eta merkataritzako trafiko juridikoan balioa duten edo eraginkortasun administratiboa duten froga-balio baliokideko gainerako dokumentuen justifikazioa aurkeztu beharko du, eta berdin-berdin bete beharko da hitzarmen honen hamaikagarren klausulan adierazitako justifikazioa.

Con anterioridad al 1 de marzo de 2024 LORRA deberá presentar la justificación de los gastos, facturas y demás documentos de valor probatorio equivalente con validez en el tráfico jurídico mercantil o con eficacia administrativa debiendo cumplirse igualmente la justificación señalada en la clausula undécima del presente convenio.

Fakturekin eta gainerako agiriekin batera,

Junto con las facturas y demás documentos

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: T6RL-F9ZF-J98R-V2UY
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral
herri administrazioko eta erakunde harremanetarako saila
departamento de administración pública y relaciones institucionales
idazkaritza orokorra / secretaría general

ordainketari dagozkion transferentziak edo banku egiaztagiriak aurkeztu beharko dira betiere.

deberán aportarse transferencia o comprobante bancario correspondiente a su pago.

HAMARGARRENA.- BURUTZEKO EPEA

1.- Dirulaguntzaren xede den jarduera 2023ko urtarrilaren 1ean hasi eta 2023ko abenduaren 31 baino lehen amaituko da.

2.- Dirulaguntza emango duen organoak laguntza hori emateko ebazpena aldatu ahal izango du ofizioz, aldez aurretik interesdunarekin entzunaldia izan eta funtsak aplikatu aurretik, laguntza emateko kontuan izan diren baldintzak aldatu badira eta, aldaketa horren ondorioz, xede den interes publikoa lortzea eragozten edo arriskuan jartzen bada, eta onuradunari kalte ekonomikorik eragiten ez bazaio.

DÉCIMA- PLAZO DE EJECUCIÓN

1.- La actividad objeto de la subvención se inicia el 1 de enero de 2023 y finalizará con anterioridad al 31 de diciembre de 2023.

2.- El órgano concedente podrá modificar de oficio la resolución de concesión, previa audiencia de la interesada y antes de la aplicación de los fondos, cuando la alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión impidan o dificulten la consecución del interés público perseguido y no se irroguen perjuicios económicos al beneficiario.

HAMAIKAGARRENA.- JUSTIFIKATZEKO EPEA ETA MODUA

Erakunde onuradunak 2024ko uztailaren 1ean baino lehen justifikatu beharko du dirulaguntza emateko xedea bete dela eta jasotako funtsak aplikatu direla. Horretarako, justifikazio-kontua aurkeztu beharko du, auditorearen txostena ere erantsiz, betiere Foru Administrazioak emandako dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua garatzen duen dirulaguntzen arautegia onartzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 23ko 34/2010 Dekretuaren 59. artikuluak ezartzen duenari jarraikiz.

Justifikazio kontuaren barruan honakoak jasoko dira:

a) Hitzarmenean ezarritako baldintzak betetzen direla frogatzen duen jarduketa memoria, egin diren jarduerak eta lortu diren emaitzak adieraziz. Behar bada, Memoria horrek atal espezifiko bat izango du egindako ekintzak genero-ikuspegitik ebaluatzeko, eta egindako ekintzetatik sexuaren arabera bereizitako datuak eman beharko ditu.

b) Egindako jardueren kostua frogatzen duen memoria ekonomikoa. Honakoak

UNDÉCIMA.- PLAZO Y FORMA DE JUSTIFICACIÓN

La justificación del cumplimiento de la finalidad por la que se concedió la subvención y la aplicación de los fondos percibidos por parte de la entidad beneficiaria, deberá efectuarse antes del 1 de julio de 2024 mediante la presentación de una cuenta justificativa con aportación de informe de persona auditora, tal y como establece el artículo 59 del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 34/2010, de 23 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de Subvenciones, de desarrollo de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral.

Esta cuenta justificativa contendrá:

a) Una memoria de actuación material justificativa del cumplimiento de las condiciones impuestas en la concesion de la subvención, con indicacion de las actividades realizadas y de los resultados obtenidos. En su caso, esta memoria contendrá un apartado específico de cara a evaluar las acciones realizadas desde una perspectiva de género, debiendo aportar datos segregados por sexo de las acciones realizadas.

b) Una memoria económica justificativa abreviada del coste de la actividad realizada,

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: T6RL-F9ZF-J98R-V2UY
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

jasoko dira bertan:

– Finantzatutako jarduerei egozteko moduko sarreren eta gastuen egoera, betiere hitzarmen honen I. eranskinean jasotako agiriaren egituraren arabera. Gastuen egoeran egotzitako gastu-kontzeptu bakoitzari dagozkion gastuen zerrenda sailkatua.

– Gastuen egoeran egotzitako gastu-kontzeptu bakoitzari dagozkion gastuen zerrenda sailkatua.

– Dirulaguntzei buruzko Foru Arauaren 29.3 artikuluaren arabera pertsona onuradunak eskatu behar izan dituen hiru aurrekontuak.

– Finantzatutako jarduerei egozteko moduko kostu orokorrak eta banagarriak banatzeko irizpideak adieraztea, hala badagokio.

c) Justifikazio kontua berrikusi eta beharrezko txostena egingo duen kontuen aditoreak inskribaturik egon beharko du Kontabilitatearen eta Kontuen Auditoretzaren Institutuaren Kontuen Auditoreen Erregistro Ofizialean.

d) Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuaren apirilaren 15eko 945/2011 Foru Aginduan (foru sektore publikoko dirulaguntzen justifikazio-kontuak berrikusteko lanak egiteko kontu-auditoreen jardun-arauak onartu dituen horretan) ezarritakoaren pean egongo da txostena, eta dirulaguntzei buruzko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren Araudiko (martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bidez onartua) 59. artikuluan jasota daude aipatutako lan horiek.

HAMABIGARRENA.- DIRULAGUNTZAREN JUSTIFIKAZIO EGOKIA BERMATZEKO BERARIAZKO KONTABILITATE-

que contendrá:

– Un estado de ingresos y gastos imputables a las actividades financiadas, conforme a la estructura que se contiene en el documento que se incluye en Anexo I de este Convenio. Una relación clasificada de gastos para cada uno de los conceptos de gasto imputados en el estado de gastos anterior.

– Una relación clasificada de ingresos para cada uno de los conceptos de ingreso imputados en el estado de ingresos anterior.

– Los tres presupuestos que en aplicación del artículo 29.3 de la Norma Foral de Subvenciones deba haber solicitado la persona beneficiaria.

– Indicación, en su caso, de los criterios de reparto de los costes generales y repartibles imputados a las actividades financiadas.

c) La persona auditora de cuentas que lleve a cabo la revisión de la cuenta justificativa y emita el pertinente informe deberá estar inscrita como ejerciente en el Registro Oficial de Auditores de Cuentas dependiente del Instituto de Contabilidad y Auditoría de Cuentas.

d) El alcance y contenido del informe será el establecido en la Orden Foral 945/2011, de 15 de abril, del Diputado Foral del Departamento de Hacienda y Finanzas, por la que se aprueban las normas de actuación de las personas auditoras de cuentas en la realización de los trabajos de revisión de cuentas justificativas de subvenciones, en el ámbito del sector público foral, previstos en el artículo 59 del Reglamento 34/2010 de desarrollo de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, de subvenciones.

DUODÉCIMA.- REGISTROS CONTABLES ESPECÍFICOS PARA GARANTIZAR LA ADECUADA JUSTIFICACIÓN DE LA

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: T6RL-F9ZF-J98R-V2UY
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

ERREGISTROAK

1.- Diruz lagundutako programa edo jarduerari dagokionez, LORRA SOZIETATE KOOPERATIBOAK kontabilitate bereiztua egin beharko du, bai kontabilitate ofizialaren barruan berariazko kontuen bidez, bai xede horrez irekitako erregistroen bitartez. Justifikazio-kontuaren euskarria izango dira.

2.- Kontu edo erregistro horietan gastuen egoera osatzen duen sail bakoitzaren kasuan, banan-banan, fakturak edo gainerako gastu frogagiriak azalduko dira eta hartzekoduna nahiz dokumentua identifikatuko dira, baita zenbatekoa BEZ eta dirulaguntzarik jaso ezin dezaketen gainerako zergak kanpo, igorpen-data eta ordaintze-data ere.

3.- Era berean, diruz lagundutako programari edo jarduerari aplikatuko zaizkion bitartekoak jasotzen dituen diru-sarreren sail bakoitzean banan-banan fakturak eta diru-sarreraren frogagiriak azalduko dira, eta zorduna, zenbatekoa eta data identifikatuko dira.

HAMAHIRUGARRENA.- BETEBEHARRAK

Hitzarmen hau behar bezala exekutatzeko, LORRA SOZIETATE KOOPERATIBOAK honako betebeharrak hartzen ditu bere gain:

a) Bizkaiko Foru Aldundiko Ingurune Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko Sailak dirulaguntzak kontrolatzeko egokitzat jotzen dituen ikuskapenak onartzea, LORRAren kontabilitate- eta finantza-kudeaketaren ikuskapena barne.

b) Bizkaiko Foru Aldundiaren Ingurune Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko Sailari eta Ogasun eta Finantza Sailari, Kontu Publikoen Euskal Epaitegiari eta gainerako organo eskudunei beharrezko informazioa ematea; izan ere, informazio hori eskatu ahalko zaio euren zereginak betetzean, emandako dirulaguntzari dagokionez.

c) Parte hartzea eta teknikari propioekin lankidetzan jardutea Ingurune Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko Sailak landare eta

SUBVENCIÓN

1.- LORRA SOCIEDAD COOPERATIVA deberá llevar una contabilidad separada del programa o actividad subvencionada, bien mediante cuentas específicas dentro de su contabilidad oficial o bien mediante registro abiertos al efecto, que serán soporte de la cuenta justificativa.

2.- En dichas cuentas o registros se deberán reflejar para cada una de las partidas que componen el estado de gastos, una por una, las facturas y demás justificantes de gasto con identificación del acreedor y del documento, su importe con separación del IVA y demás impuestos que no sean subvencionables, la fecha de emisión y fecha de pago.

3.- Igualmente, cada una de las partidas de ingreso que recogen los recursos aplicables al programa o actividad subvencionada, deberán reflejar una por una las facturas y demás documentos justificativos de ingreso con identificación del deudor, importe y fecha.

DECIMOTERCERA.- OBLIGACIONES

Para la correcta ejecución del presente convenio, LORRA SOCIEDAD COOPERATIVA adquiere las siguientes obligaciones:

a) Someterse a las inspecciones que el Departamento Medio Natural y Agricultura de la Diputación Foral de Bizkaia considere oportuno realizar para el control de las subvenciones, incluida la gestión contable y financiera de LORRA.

b) Facilitar a los Departamentos de Medio Natural y Agricultura y de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Bizkaia, al Tribunal Vasco de Cuentas Públicas y demás Órganos competentes la información que les sea requerida en el ejercicio de sus funciones respecto de la subvención concedida.

c) Participar y colaborar con el personal técnico propio en las acciones técnicas y formativas que desarrolle el Departamento

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: T6RL-F9ZF-J98R-V2UY
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus
Bizkaia foru aldundia diputación foral

abere ekoizpenaren eta osasunaren, mahastizaintzaren eta enologiaren inguruan antolatzen dituen jarduera teknikoetan eta trebakuntza-ekintzetan.

Medio Natural y Agricultura en materia de producción y sanidad vegetal y animal, así como en viticultura y enología.

d) Ingurune Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko Sailari datu eta informazio teknikoak, datu ekonomikoak eta kudeaketari buruzko datuak ematea, eta datu horiei eusten dieten aplikazio informatikoak erabiltzen uztea kontsulta mailan, eta ebazpen honen baloraziorako beharrezkoak diren beste datu batzuk ematea, esate baterako laboreen fitxa teknikoak, horretarako behar diren sistema elektronikoak edo telefonikoak erabiliz. Landare osasunari dagokionez, zehazki, agente kaltegarriren bat ezustean agertzen bada edo gorabehera fitosanitarioren bat gertatzen bada, berehala jakitun jarri beharko da Nekazaritza Hobekuntzaren eta Landare Babesaren Atala, eta berak laginak hartuko ditu eta diagnostikoa egingo du.

d) Aportar al Departamento Medio Natural y Agricultura los datos e información técnica, datos económicos y de gestión y facilitar el acceso a las aplicaciones informáticas que los soportan a nivel de consulta y otros datos necesarios para la valoración de la presente resolución, como las fichas técnicas de cultivos y por medio de los sistemas electrónicos o telefónicos precisos. Concretamente, en Sanidad Vegetal, se deberá informar inmediatamente de la aparición atípica de agentes nocivos y de cualquier incidencia fitosanitaria a la Sección de Mejora Agrícola y Protección Vegetal, quien tomará las muestras y efectuará el diagnóstico oportuno.

e) Erakunde onuradunaren urteko kontuen auditoretza aurkeztu beharko da.

e) Presentación de la Auditoría de Cuentas Anuales de la Entidad Beneficiaria.

f) Teknikariek ustiategietara egindako bisiten parteen laburpenak aurkeztuko ditu LORRAk, bai eta lan horretan egindako orduen eta horien banaketaren hileko laburpenak ere.

f) LORRA aportará los resúmenes de los partes de visitas efectuadas a las explotaciones por el personal técnico, así como el resumen mensual de horas trabajadas y su distribución en este sentido.

g) LORRAk Ingurune Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko Sailari eman beharko dizkio era guztietako kudeaketa datuak, datu tekniko eta ekonomikoak, betiere Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzen foru dekretuetan ezarritakoaren arabera. Ezin izango die hirugarrenei inolako datu indibidualik eman aholkatutako ustiategiei buruz, aldez aurretik jabearen baimena ez badute.

g) LORRA deberá facilitar al Departamento Medio Natural y Agricultura todo tipo de datos de gestión, técnicos, económicos…, establecidos en los Decretos Forales de ayuda de la Diputación Foral de Bizkaia a las distintas Asociaciones. No podrá facilitar a terceros ningún dato individual de las explotaciones asesoradas sin previa autorización del propietario.

HAMALAUGARRENA.-AZPIKONTRATAZIOA

DECIMOCUARTA- SUBCONTRATACIÓN

1.- Hitzarmen honen ondorioetarako, azpikontratatzen dela ulertuko da dirulaguntza jasotzen duen erakunde onuradunak jarduera oso-osorik edo zati batean hirugarrenekin egitea hitzartzen duenean.

1.- A los efectos de este Convenio, se entiende que se produce subcontratación cuando la entidad beneficiaria de la subvención concierta con terceros la ejecución total o parcial de la actividad que constituye el objeto de la subvención.

2.- Erakunde onuradunak osorik edo zati batean

2.- La Entidad beneficiaria podrá subcontratar

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: T6RL-F9ZF-J98R-V2UY
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral
herri administrazioko eta erakunde harremanetarako saila
departamento de administración pública y relaciones institucionales
idazkaritza orokorra / secretaría general

azpikontratatu dezake diruz lagundutako jarduera, honakoak betetzen baditu: maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 27. artikuluan eta Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuko 53. artikuluan adieraziko eskakizun eta debekuak.

total o parcialmente, la actividad subvencionada, de acuerdo con los requisitos y prohibiciones establecidos en el artículo 27 de la Norma Foral 5/2005 de 31 de mayo y el artículo 53 del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 34/2010 de 23 de marzo.

3.- Erakunde onuradunak jarduera %100ean azpikontrata dezake, baina proiektuaren zuzendaritza zuzenean berak egin beharko du, ezin izango du azpikontratatu.

3.- La actividad que la entidad beneficiaria subcontrate, podrá llegar al 100%, reservándose siempre la acción directa de la dirección de la actividad, que no podrá ser subcontratada.

4.- Hirugarrenekin itundutako jarduera dirulaguntzaren % 20 baino handiagoa bada eta, horrez gain, 60.000 eurotik gorakoa bada, kontratua idatziz formalizatuta egon beharko da eta baimena eskatu beharko zaio Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko Sailari. Zuzendaritza horrek 15 eguneko epean ebatziko du. Aldi horretan berariazko ebazpenik eman ezean, baimena emantzat hartuko da administrazio-isiltasun bidez.

4.- Cuando la actividad concertada con terceras personas exceda del 20% de la subvención y, además sea superior a 60.000 euros, el contrato deberá estar formalizado por escrito y deberá solicitarse una autorización al Departamento de Medio Natural y Agricultura, quien resolverá en un plazo de 15 días. Caso de no mediar resolución expresa, la autorización se considerará concedida mediante silencio administrativo.

5.- Foru Administrazioak, preskripzio-denboraldiaren barruan, azpikontratatutako jardueren kostua eta merkatuko balioa egiazta ditzake, 34/2010 Foru Dekretuak, martxoaren 23koak, 5/2005 Foru Araua, maiatzaren 31koa, Foru Administrazioak emandako dirulaguntzen lege-araudi orokorra arautzen duena, garatzeko dirulaguntzen araudia onartzeari buruzkoak, 72. artikuluan xedatutakoarekin bat.

5.- La Administración Foral podrá comprobar, dentro del periodo de prescripción, el coste así como el valor de mercado de las actividades subcontratadas de conformidad con lo establecido en el artículo 72 del Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de Subvenciones, de desarrollo de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por el que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral.

HAMABOSGARRENA.- ZERGA BETEBEHARRAK ETA GIZARTE SEGURANTZAREKIKOAK

DECIMOQUINTA- OBLIGACIONES TRIBUTARIAS Y CON LA SEGURIDAD SOCIAL

LORRA SOZIETATE KOOPERATIBOAK zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatu beharko du, laguntza emateko ebazpen proposamena ezarri baino lehen.

LORRA SOCIEDAD COOPERATIVA deberá acreditar, hallarse al corriente de sus obligaciones tributarias y de la seguridad social en el momento de otorgamiento y del pago del importe de la solicitud.

Baldin eta egiaztapenean antzematen bada erakunde onuradunak ez duela betetzen aurreko paragrafoan ezarritakoa, hamar (10) eguneko epealdia emango zaio, bere egoera erregularizatzeko, eta adieraziko zaio, hori egin ezean, Aldundiaren ekarpena jasotzeko eskubidea kenduko zaiola, administrazio-ebazpen

Si como consecuencia de la comprobación efectuada resulta que tal entidad incumple lo establecido en el párrafo anterior, ésta será requerida para que en el plazo de 10 días regularice tal situación con indicación de que, en caso contrario, pierde el derecho a la aportación económica foral, previa la correspondiente

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: T6RL-F9ZF-J98R-V2UY
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

baten bitartez.

resolución administrativa.

Dirulaguntza ez da ordainduko, eskaera izapidetu bitartean eskatzaileak ez baditu egunean zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak edo zorduna bada dirulaguntzak itzultzeko prozeduraren ebazpen baten bidez.

No se materializaría el pago de la subvención si a la fecha de su tramitación no se está al corriente en el cumplimiento de las citadas obligaciones tributarias y frente a la Seguridad Social, o sea deudora por resolución de procedimiento de reintegro de subvenciones.

Horrez gain, onuradunari laguntza horiek eman eta, hala dagokionean, ordaintzeko, ezinbestekoa izango da Bizkaiko Foru Aldundiak eta haren erakunde autonomoek eman dituzten izaera bereko laguntzen edo dirulaguntzen inguruan hasten diren dirua itzultzeko prozedurak edo zehapen prozedurak amaituta egotea.

Asimismo, la concesión y, en su caso el pago de las ayudas a la entidad beneficiaria quedarán condicionadas a la terminación de cualquier procedimiento de reintegro o sancionador que, habiéndose iniciado en el marco de ayudas o subvenciones de la misma naturaleza concedidas por la Diputación Foral de Bizkaia y sus organismos autónomos, se halle todavía en tramitación, o, en su caso, pendiente de abono.

HAMASEIGARRENA.- PROZEDURA AGINTZEKO ETA IZAPIDETZEKO ORGANO ESKUDUNA

DECIMOSEXTA.- ÓRGANO COMPETENTE PARA LA ORDENACIÓN E INSTRUCCIÓN DEL PROCEDIMIENTO.

Prozedura kudeatuko duten organoak Abeltzaintza Zerbitzua eta Nekazaritza Zerbitzua izango dira euren eskumenari dagozkion ataletan; zerbitzu horiek ofizioz egingo dituzte beharrezkotzat jotzen dituzten jarduketa guztiak, betiere hitzarmen honen xedea den dirulaguntza emateko eta justifikatzeko eta organo eskudunari haren ebazpen proposamena egiteko datuak zehaztu, ezagutu eta egiazta daitezen.

El Órgano gestor del procedimiento serán los Servicios de Ganadería y Servicio Agrícola en las áreas correspondientes a su competencia respectiva, los cuales realizarán de oficio cuantas actuaciones estimen necesarias para la determinación, conocimiento y comprobación de los datos en virtud de los cuales debe formularse la concesión y justificación de la subvención objeto de este convenio y su propuesta de resolución al Órgano competente para resolver.

Ingurune Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko Saileko Nekazaritza Zuzendaritza Nagusiko Abelzaintza Zerbitzuak eta Nekazaritza Zerbitzuak, Bizkaiko Elkarreragingarritasun Nodoaren bidez eta azaldutako elkarreragingarritasun-zerbitzuak erabiliz, beharrezkoak diren egiaztapenak eta kontsultak egingo dituzte Administrazioak dituen datuak direla-eta, datuok beharrezkoak direnean laguntzen izapidetze administratiborako, betiere diruz lagundutako erakundea berariaz aurka ez badago. Arrazoi teknikoak direla eta, ezinezkoa bada elkarreragingarritasunera jotzea, Abelzaintza Zerbitzuak edo eta Nekazal Zerbitzuak izapideak egiteko beharrezkotzat jotzen dituen datuak edo dokumentuak eskatu

Los servicios de Ganadería y Servicio Agrícola de la Dirección General de Agricultura del Departamento Medio Natural y Agricultura mediante el Nodo de Interoperabilidad de Bizkaia, a través de los servicios de interoperabilidad expuestos, realizará las comprobaciones y consultas necesarias de los datos requeridos para la tramitación administrativa de esta ayuda que obren en poder de la Administración, siempre que no exista oposición expresa por parte de la entidad subvencionada. Si por causas técnicas la interoperabilidad no fuera posible el Servicio de Ganadería y/o el Servicio Agrícola podrá requerir datos o documentos necesarios para la tramitación, todo ello según los términos previsto del artículo 28.2 de la Ley 39/2015 de

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: T6RL-F9ZF-J98R-V2UY
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus
Bizkaia foru aldundia diputación foral

ahal izango ditu, betiere Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 28.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, Datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamenduaren 6.e) artikuluari lotuta, bai eta Datu pertsonalak babestu eta eskubide digitalak bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoarekin bat etorriz (Zortzigarren Xedapen gehigarria).

Procedimiento Administrativo Común, en relación al artículo 6.e) del Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 27 de abril de 2016, relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos; así como a lo establecido en la Disposición Adicional Octava de la Ley Orgánica de Protección de Datos (LO 3/2018).

Espedientea izapidetu bitartean, instrukzio organoak beharrezko datuak zehazteko eta egiaztatzeko behar adina informazio eta dokumentu gehiagarri eskatu ahal izango ditu. Interesdunak izapide horiek betetzeko jardun ezean, Herri Administrazioen Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak ezarritakoari lotuko zaio.

Durante la instrucción del expediente el Órgano instructor podrá requerir cuanta información y documentos adicionales precise para determinar y comprobar los datos necesarios. En el supuesto de inactividad dela persona interesada en la cumplimentación de estos trámites, se estará a lo dispuesto en la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Común de las Administraciones Públicas.

HAMAZAZPIGARRENA.- EMANDAKO DIRULAGUNTZAREN EGIAZTAPENA

DECIMOSÉPTIMA.- COMPROBACIÓN DE LA SUBVENCIÓN CONCEDIDA.

Abeltzaintza Zerbitzuak eta Nekazaritza Zerbitzuak honako hauek egiaztatuko dituzte:

Por parte de los Servicios de Ganadería y Servicio Agrícola se procederá a la comprobación de:

1.- Proiektuaren edo egindako jardueraren gaineko azalpen-memoria teknikoaren edukia.

1.- El contenido de la memoria técnica explicativa del proyecto o actuación llevada a cabo.

Memoria horretan, egindako jardueren alderdirik garrantzitsuenak jaso beharko dira.

En esta memoria se deberán recoger los aspectos más relevantes de las actuaciones realizadas.

2.- Erakundeak aurkeztutako sarrera eta gastu zehatzen memoria ekonomikoaren edukia. Halaber, egiaztatuko da fakturak edo merkataritza trafiko juridikoan froga balio baliokidea duten agiriak zuzenak direla eta diruz lagundutako jarduketari dagozkiola.

2.- El contenido de la memoria económica detallada de ingresos y gastos presentada por la entidad. Así mismo se verificará que las facturas o documentos de valor probatorio equivalente en el tráfico jurídico mercantil son correctas y se corresponden con la actuación subvencionada.

Egiaztapen hori Abeltzaintza Zerbitzuaren eta Nekazaritza Zerbitzuaren txosten batean islatuko da.

Esta comprobación se plasmará en un informe de los Servicios de Ganadería y Servicio Agrícola.

Txostena onuradunek dokumentazio hori aurkeztu ondoren egingo da, gehienez ere hura aurkezten denetik 4 hilabeteko epean.

Este informe será realizado una vez que la entidad beneficiaria haya presentado dicha documentación y en un plazo máximo de 4

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: T6RL-F9ZF-J98R-V2UY
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral
herri administrazioko eta erakunde harremanetarako saila
departamento de administración pública y relaciones institucionales
idazkaritza orokorra / secretaría general

meses desde su presentación.

HAMAZORTZIGARRENA.- EMANDAKO DIRULAGUNTZAREN PUBLIZITATEA

1.- LORRA SOZIETATE KOOPERATIBOAK Bizkaiko Foru Aldundiak emandako lankidetza zabaltzeko konpromisoa hartzen du; horretarako, proiektuaren instalazioetan eta dibulgazio edo erreferentziako elementu guztietan foru aldundiaren irudi korporatiboa txertatuko du.

2.- Eginbehar hori betetzen ez bada, Dirulaguntzei buruzko 5/2005 Foru Arauak IV. tituluan aurrez ikusitako araubidea aplikatuz izan daitezkeen erantzukizunak alde batera utzi gabe, hurrengo arauak aplikatuko dira:

a) Oraindik baldintzak betetzea posible bada, Bizkaiko Foru Aldundiko Ingurune Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko Sailak LORRA SOZIETATE KOOPERATIBOAri 15 egunetik beherako epean zehaztutako hedapen-neurriak har ditzan eskatuko dio eta, Dirulaguntzei buruzko Foru Arauak 33. artikuluan xedatutakoa aplikatuz, ez betetzeak dituen ondorioei buruz berariaz ohartaraziko dio. Baliogabetzeko edo itzultzeko erabakirik ezingo da hartu, Bizkaiko Foru Aldundiko Ingurune Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko Sailak izapide hori bete gabe.

b) Neurri hauek eragindako jarduerak jada eginak daudelako baldintzak betetzea ezinezkoa bada, Bizkaiko Foru Aldundiko Ingurune Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko Sailak hautazko neurriak zehatz ditzake, betiere jasotako finantzaketa publikoa hasieran adostutako norainoko berarekin heda badaiteke. Bizkaiko Foru Aldundiko Ingurune Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko Sailak LORRAari egindako eskean neurriak hartzeko 15 egunetik beherako epea zehaztuko da eta Dirulaguntzei buruzko Foru Arauak 33. artikuluan xedatutakoa aplikatuz, ez betetzeak dituen ondorioei buruz berariaz ohartaraziko dio.

3.- Bizkaiko Foru Aldundiak egokitzat jotzen

DECIMOCTAVA- PUBLICIDAD DE LA SUBVENCIÓN CONCEDIDA

1.- LORRA SOCIEDAD COOPERATIVA se compromete a difundir la colaboración prestada por la Diputación Foral de Bizkaia, insertando la imagen corporativa de la Diputación Foral, como entidad financiadora, en todo elemento divulgativo o referencial del mismo.

2.- De incumplirse esta obligación, y sin perjuicio de las responsabilidades en que, por aplicación del régimen previsto en el título IV de la Norma Foral 5/2005 de Subvenciones pudieran corresponder, se aplicarán las siguientes reglas:

a) Si resultara aún posible su cumplimiento en los términos establecidos, el Departamento Medio Natural y Agricultura de la Diputación Foral de Bizkaia requerirá a LORRA SOCIEDAD COOPERATIVA, para que adopte las medidas de difusión establecidas en un plazo no superior a 15 días, con expresa advertencia de las consecuencias que de dicho incumplimiento pudieran derivarse por aplicación del artículo 33 de la Norma Foral de Subvenciones. Sin que pueda adoptarse ninguna decisión de revocación o reintegro sin que el Departamento Medio Natural y Agricultura de la Diputación Foral de Bizkaia hubiera dado cumplimiento a dicho trámite.

b) Si por haberse desarrollado ya las actividades afectadas por estas medidas, no resultara posible su cumplimiento en los términos establecidos, el Departamento Medio Natural y Agricultura de la Diputación Foral de Bizkaia podrá establecer medidas alternativas, siempre que estas permitieran dar la difusión de la financiación pública recibida con el mismo alcance de las inicialmente acordadas. En el requerimiento que se dirija por el Departamento Medio Natural y Agricultura de la Diputación Foral de Bizkaia a LORRA, se fijará un plazo no superior a 15 días para su adopción con expresa advertencia de las consecuencias que de dicho incumplimiento pudieran derivarse por aplicación del artículo 33 de la Norma Foral de Subvenciones.

3.- La Diputación Foral de Bizkaia podrá utilizar e

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: T6RL-F9ZF-J98R-V2UY
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Bizkaia foru aldundia diputación foral
herri administrazioetako eta erakunde harremanetarako saila
departamento de administración pública y relaciones institucionales
idazkaritza orokorra / secretaría general

duen edozein euskarritan erabili eta sartu ahal izango ditu jarduera garatzean sortzen diren materialak, dokumentuak eta datuak. Horrelakoetan, LORRA SOZIETATE KOOPERATIBOAK egin dituela adieraziko du.

incorporar en cualquier soporte que juzgue conveniente los materiales, documentos y datos realizados durante el desarrollo de la actividad, indicando que han sido elaborados por LORRA SOCIEDAD COOPERATIVA.

4.- Emandako dirulaguntzaren publizitatearen barruan, eta LORRA SOZIETATE KOOPERATIBOAK behar bezalako gardentasuni lotutako beharkizunak bere behar dituenez, elkarteei emango dizkien zerbitzuen partaidetza egingo du, izendun honen eta elkarteen gastuaren zati bat ordaintzeko dirulaguntza izendunaren zenbatekoaren babesean.

4.-Dentro de la publicidad de la subvencion concedida y atendiendo a la debida transparencia LORRA SOCIEDAD COOPERATIVA, hará participes a las asociaciones de los servicios prestados a las mismas al amparo de la presente nominativa y del montante de la subvención nominativa destinada a sufragar parte del gasto de las Asociaciones.

HAMABEDERATZIGARRENA.- EZ-BETETZEA ETA DIRUA ITZULTZEA

DECIMONOVENA.-INCUMPLIMIENTOS Y REINTEGROS

1.- Jasotako dirulaguntza eta beraren berandutza-korrituak itzuli beharko dira, baldin eta dirulaguntza arautzen duen foru dekretuan ezarritako betebeharretakoren bat eta Foru Administrazioak emandako dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 33. artikuluan ezarritako betebeharretako bat betetzen ez bada, besteak beste:

1.- Procederá el reintegro de la subvención recibida y los intereses de demora correspondientes, cuando se incumplan algunas o algunas de las obligaciones establecidas en el Decreto Foral regulador de la subvención o de las previstas en el artículo 33 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por las Administración Foral, entre ellas:

a) Dirulaguntza jasotzeko behar diren baldintzak faltsutuz edo dirulaguntza jasotzea galaraziko luketen datuak ezkutatuz jaso bada dirulaguntza.

a) Obtención de la subvención falseando las condiciones requeridas para ello u ocultando aquellas que lo hubieran impedido.

b) Helburua, jarduera edo aktibitatea zati batez edo osorik ez betetzea, edo dirulaguntza emateko oinarri den jokabidea ez izatea.

b) Incumplimiento total o parcial del objetivo, de la actividad o la no adopción del comportamiento que fundamentan la concesión de la subvención.

c) Egiaztatu beharreko betebeharra ez betetzea.

c) Incumplimiento de la obligación de justificación.

d) Ezarritako kontrol jarduketak oztopatzea edo egiteari uko egitea.

d) Negativa u obstrucción a las actuaciones de control establecidas.

2.- Aurreko paragrafoan adierazitako inguruabarretatik kanpo, eta betiere, onuradunak zalantzarik gabe konpromisoak betetzeko egindako jarduera egiaztatuz gero, baldintzak zati batean betetzen badira edo epe barruan jardueraren zati bat besterik egin ez bada, dirulaguntzaren zati bat ordainduko da edo, hala badagokio, zati bat itzuli beharko da. Kasu horietan, kopuru osoaren gainean egindako

2.- Fuera de los supuestos del párrafo precedente, el cumplimiento parcial de las condiciones o la realización en plazo de sólo una parte de la actividad, siempre que se acredite una actuación del beneficiario inequívocamente tendente a la satisfacción de los compromisos, dará lugar al pago parcial de la subvención o, en su caso, al reintegro también parcial aplicando la proporción en que se encuentre la actividad



Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: T6RL-F9ZF-J98R-V2UY
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

jarduerararen proportzioa aplikatuko da.

realizada respecto de la total.

3.- Bizkaiko Foru Aldundiko zerbitzuek egiaztapen edo kontrol finantzarioa egin ondoren, jada dirulaguntza jaso denean egindako gastu guztiak edo zati bat ez direla ordaindu azaltzen bada eta hartzekodunek eska baditzakete, itzultzeko eskatuko da eta, horretarako, proportzionaltasunaren printzipioa erabiliko da. Hori horrela, dirulaguntza itzuli beharko da, diruz lagundu eta egotzitako gastu guztien gainean ordaindu gabeko gastuen proportzioan.

3.- Si de la realización de una comprobación o control financiero por los servicios de la Diputación Foral de Bizkaia se pusiera de manifiesto la falta de pago de todos o parte de los gastos realizados, después de cobrada la subvención, siendo exigibles por los respectivos acreedores, se exigirá el reintegro aplicando el principio de proporcionalidad, a cuyo efecto se considerará reintegrable la subvención en proporción a los gastos no pagados respecto al total de gastos subvencionables imputados.

4.- Era berean, dirulaguntzaren zenbatekoak, isolatua edo beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo bitartekoekin elkartuta, diruz lagundutako jarduerararen kostua gainditzen duenean, dirulaguntza jaso duen jarduerararen kostuaren gainean lortutako soberakina itzuli beharko da eta dagozkion berandutza-interesak eskatuko dira.

4.- Igualmente, cuando el importe de la subvención aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, supere el coste de la actividad subvencionada, procederá el reintegro del exceso obtenido sobre el coste de la actividad subvencionada, así como la exigencia del interés de demora correspondiente.

HOGEIGARRENA.- DIRULAGUNTZA BORONDATEZ ITZULTZEA

VIGÉSIMA- DEVOLUCIÓN DE LA SUBVENCIÓN POR PROPIA INICIATIVA

1.- Aldez aurretik eskatu gabe, LORRA S. KOOPk borondatez dirulaguntzaren zati bat edo guztia itzultzen badu, Dirulaguntzei buruzko 5/2005 Foru Arauak 34. artikuluan aurrez ikusitakoaren arabera, Bizkaiko Foru Aldundiak berandutza-interesak kalkulatuko ditu, benetan itzuli arte.

1.- Para el supuesto en el que LORRA S. COOP. sin previo requerimiento, procediere a la devolución voluntaria total o parcial del importe de la subvención, la Diputación Foral de Bizkaia procederá al cálculo de los intereses de demora de acuerdo con lo previsto en el artículo 34 de la Norma Foral 5/2005 de Subvenciones y hasta el momento en que se produjera la devolución efectiva.

2.- Onuradunak berak hala eskatuta aldundiaren dirulaguntza itzuliko bada, ordain-gutun egokia aurkeztu beharko da. Gutuna dirulaguntza kudeatzen duen foru zerbitzuaren egoitzetan eskatu eta izapidetuko da. Aipatutako ordain-gutunean itzuli beharreko zenbatekoa kontsignatuko da (printzipala eta interesak), modeloaren kodea eta sarreraren arrazoia. Horrekin batera, itzuli beharreko dirulaguntza ere aipatu beharko da.

2.- La devolución de la subvención foral a instancia de la propia persona beneficiaria de la misma se deberá realizar mediante la correspondiente carta de pago que, a su requerimiento, le será tramitada en las dependencias del Servicio foral gestor de la subvención. En dicha carta de pago se consignará el importe a devolver (principal e intereses), código del modelo y motivo del ingreso haciéndose además referencia a la subvención a devolver.

3.- Onuradunak finantza erakunde batean edo telebankuaren sistemaren bidez itzuli behar du dirulaguntza; hori egin ostean, kopia bat edo itzulketaren frogagiria aurkeztu beharko da foru

3.- Una vez practicado el abono por la persona beneficiaria de la subvención bien en una entidad financiera, bien a través del sistema de telebanca, habrá de remitirse copia de la misma o justificante del respectivo ingreso al Servicio

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: T6RL-F9ZF-J98R-V2UY
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus
Bizkaia
foru aldundia
diputación foral
herri administrazioko eta erakunde harremanetarako saila
departamento de administración pública y relaciones institucionales
idazkaritza orokorra / secretaría general

zerbitzu kudeatzailean.

HOGEITA BATGARRENA.- DIRULAGUNTZAREN FINANTZA KONTROLA

1.- LORRA S.KOOPk lankidetza eskaini behar du eta Bizkaiko Foru Aldundiak nahiz araudi komunitarioarekin bat finantza-kontrolaren funtzioak dituzten organoek eskatutako dokumentazioa emango du. Xede horretarako, Dirulaguntzei buruzko 5/2005 Foru Arauko 40.1 artikuluan aitortutako ahalmenak izango ditu, besteak beste:

a) Egiaztatu nahi den dokumentazioa, euskarri informatikoan dauden programak eta artxiboak barne, libreki lortzea.

b) Dirulaguntza oker lortu, gozatu edo erabili dela susmatzen denean, operazio horiei buruz fakturen, dokumentu baliokideen edo beste edozein dokumenturen kopia lortzea edo atxikitzea.

2.- Eginbehar hori betetzeari uko egiten bazaio, oztopoa, aitzakia, traba edo ukoa izango da, Dirulaguntzei buruzko 5/2005 Foru Arauak 33. artikuluan aurrez ikusten duenerako, legozkiokeen zehapenak alde batera utzi gabe.

3.- LORRA S.KOOPk Ingurune Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko Sailari jakinarazi beharko dio dirulaguntza ematean kontuan hartu diren baldintzak aldatzen dituen inguruabarren bat gertatu bada edo xede bererako beste laguntza edo dirulaguntza publikoren bat lortu bada.

4.- Erakunde onuradunak jasotako funtsen aplikazioaren frogagiriak gorde behar ditu, agiri elektronikoak barne, egiaztatzeko eta kontrolatzeko jarduketetan erabilgarri izan daitezkeen bitartean.

HOGEITA BIGARRENA.- ARAU-HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK

Hitzarmen honen ondorioz dirulaguntzaren

foral gestor.

VIGESIMOPRIMERA.- CONTROL FINANCIERO DE LAS SUBVENCIONES

1.- LORRA S. COOP., está obligada a prestar colaboración y facilitar cuanta documentación sea requerida por la Diputación Foral de Bizkaia, así como a los órganos a que se refiere el artículo 40.3 que, tengan atribuidas funciones de control financiero, a cuyo fin tendrán las facultades reconocidas en el artículo 40.1, ambos de la Norma Foral 5/2005 de Subvenciones, entre ellas:

a) El libre acceso a la documentación objeto de comprobación, incluidos los programas y archivos en soportes informáticos.

b) La obtención de copia o la retención de las facturas, documentos equivalentes o sustitutivos y de cualquier otro documento relativo a las operaciones en las que se deduzcan indicios de la incorrecta obtención, disfrute o destino de la subvención.

2.- La negativa al cumplimiento de esta obligación se considerará resistencia, excusa, obstrucción o negativa a los efectos previstos en el artículo 33 de Norma Foral 5/2005 de Subvenciones, sin perjuicio de las sanciones que, en su caso, pudieran corresponder.

3.- LORRA S. COOP. deberá poner en conocimiento del Departamento Medio Natural y Agricultura cualquier circunstancia que suponga una alteración de las condiciones tenidas en cuenta en la concesión de la subvención y la obtención de otras ayudas o subvenciones públicas para la misma finalidad.

4.- La Entidad beneficiaria deberá conservar los documentos justificativos de la aplicación de los fondos recibidos, incluidos los documentos electrónicos, en tanto puedan ser objeto de las actuaciones de comprobación y control.

VIGÉSIMOSEGUNDA.- INFRACCIONES Y SANCIONES

Las infracciones y sanciones en materia de la

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: T6RL-F9ZF-J98R-V2UY
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Bizkaia foru aldundia diputación foral
herri administrazioko eta erakunde harremanetarako saila
departamento de administración pública y relaciones institucionales
idazkaritza orokorra / secretaría general

arloan sor daitezkeen arau-hausteak eta zehapenak Dirulaguntzei buruzko 5/2005 Foru Arauak IV. tituluko I. kapituluan xedatutakoaren arabera arautuko dira.

subvención a que da lugar el presente Convenio, se regirán por lo dispuesto en capítulo I del título IV de la Norma Foral 5/2005 de Subvenciones.

HOGEITA HIRUGARRENA.- HITZARMENAREN INDARRALDIA

Hitzarmen honek 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak, eta 2023ko abenduaren 31ra arte iraungo du. Hitzarmena sinatzen den eguna izango da azkenekoa eman den eguna.

Aurreko idatz-zatian adierazitako indarraldia bukatu delako azkenduko da hitzarmena, edo hitzarmena suntsiarazi delako.

Dena dela, alderdi batek konpromisoren bat betetzen ez badu, beste alderdiak zorrotz bete ditzala edo hitzarmena desegin dadila eskatu ahal izango du.

VIGESIMOTERCERA.-VIGENCIA DEL CONVENIO

El presente Convenio tendrá efectos desde el 1 de enero de 2023, extendiendo su vigencia hasta el 31 de diciembre del 2023. La fecha de la firma del convenio será aquella en la que se haya producido la última emitida.

El Convenio se extinguirá o bien por el transcurso del plazo de vigencia referida en el apartado anterior o por resolución.

No obstante, el incumplimiento por alguna de las partes de los compromisos asumidos facultará a la otra para exigir su estricto cumplimiento o para solicitar la resolución del Convenio.

HOGEITA LAUGARRENA.- JARRAIPEN BATZORDEA

1. Hitzarmen honen barruan, jarraipen-batzorde bat sortu da. Batzordearen xedea jarraipen bateratu bat egitea eta alderdien jarduna koordinatzea izango da, hitzarmen honetan hartutako betebeharrak eta helburu orokorrak betetzeari dagokionez dituen eskumenen eta funtzioen esparruaren barnean.

2. Hona hemen Jarraipen Batzordearen eginkizunak:

- Betetzeko eta interpretatzeko egon daitezkeen arazoak ebaztea.
- Hitzarmen hau betez aldeek egingo dituzten jarduera guztiak jarraitu eta koordinatzea, kontuan hartuta kasu bakoitzean ezarritako baldintzak bete behar direla helburua betetzeko.
- Hitzarmen honen xedea errazago betetzeko beharrezko inguruabarrak sustatzea,

VIGESIMOCUARTA.- COMISIÓN DE SEGUIMIENTO

1. En el seno del presente Convenio se crea una Comisión de Seguimiento cuyo objeto será efectuar el seguimiento conjunto y coordinar las actuaciones de las partes, dentro del marco de sus respectivas competencias y funciones, en orden al cumplimiento de las obligaciones contraídas y objetivos generales del presente Convenio.

2. Serán funciones de esta Comisión de Seguimiento:

- Resolver los problemas de interpretación y cumplimiento que puedan presentarse.
- Seguimiento y coordinación de todas aquellas actuaciones que lleven a cabo las partes en cumplimiento de este Convenio, teniendo en cuenta que el cumplimiento del objeto previsto se halla sujeto a que se den las condiciones precisas en cada supuesto.
- Promover las condiciones que sean necesarias para favorecer el cumplimiento del

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: T6RL-F9ZF-J98R-V2UY
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

sortzen diren gorabehera guztiak baloratuta, gorabehera horien erruz alderdietako batek bere konpromisoak betetzeko eragozpenak baditu edo bete ezin baditu; kasuan kasu, alderdiei proposamen egokia aurkeztuko die.

objeto de este Convenio, valorando todas aquellas incidencias que puedan producirse y dificulten o impidan el cumplimiento por parte de alguna de las partes de sus compromisos, elevando, en su caso, la oportuna propuesta a las partes.

Zentzu honetan, Jarraipen Batzordeak jarduerak egitean izan daitezkeen aldaketak baloratu eta onartuko ditu, baldin eta onartutako aldaketek hitzartutako proiektuaren funtsezko aldaketa ez badakarte eta Bizkaiko Foru Aldundiak emandako finantzazioaren gehikuntza eragiten ez badute.

En este sentido, la Comisión de Seguimiento valorará y aprobará los cambios que se pudieran dar en la realización de las actividades, siempre que, los cambios aprobados no supongan una alteración sustancial del proyecto conveniado, no suponiendo, en ningún caso aumento de la financiación aportada por la Diputación Foral de Bizkaia.

- Legez dagozkion gainerakoak.

- Aquellas otras que legalmente le correspondan.

3. Hauexek izango dira Jarraipen Batzordeko lau kideak:

- Bizkaiko Foru Aldundiaren bi ordezkariak:

- Abeltzaintza Zerbitzuaren burutza; haren ordez jardun ahalko du zerbitzu horretan sekzioko burutza bat betetzen duenak.

- Nekazaritza Zerbitzuaren burutza; haren ordez jardun ahalko du zerbitzu horretan sekzioko burutza bat betetzen duenak.

- Bi LORRA SOZIETATE KOOPERATIBOAREN izenean.

- Lehendakaria.

- Zuzendari-gerentea.

Haren presidentzian jardungo du txandaka Abeltzaintza Zerbitzuaren burutza edo Nekazaritza Zerbitzuaren burutza betetzen duenak (edo haren ordezkoak).

Jarraipen Batzordearen idazkaritza beteko du presidentzia betetzen ari ez den Nekazaritza Zuzendaritza Nagusiaren zerbitzu burutzak.

Batzordeak, bere eginkizunak betetzeko, eskatu ahal izango du arloko behar beste aditu bere

3. La Comisión de Seguimiento estará integrada por cuatro miembros:

- Dos en representación de la Diputación Foral de Bizkaia:

- La jefatura de servicio del Servicio de Ganadería, que podrá ser sustituida por quien ocupe una jefatura de sección en dicho servicio.

- La jefatura de del Servicio Agrícola, que podrá ser sustituida por quien ocupe una jefatura de sección en dicho servicio.

- Dos en representación de la LORRA SOCIEDAD COOPERATIVA:

- El/la Presidente/a

- El/la Director/a Gerente.

La Presidencia de la misma corresponderá alternativamente a quien ocupe la Jefatura de servicio del Servicio de Ganadería o del Servicio Agrícola (o persona que le sustituya).

Ejercerá la secretaría de la Comisión de Seguimiento la jefatura de servicio de la Dirección General de Agricultura que no esté ejerciendo la presidencia.

La Comisión, en el ejercicio de sus funciones, podrá solicitar la asistencia a sus reuniones y el

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: T6RL-F9ZF-J98R-V2UY
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

bileretara bertaratzeko eta aholkularitza emateko. Pertsona horiek iritzia eman ahal izango dute, baina ezin izango dute botorik eman.

asesoramiento de cuantas personas expertas en la materia estime necesarios, que acudirán con voz pero sin voto.

Halaber, Batzordeko presidenteak deituta, Aholkularitza eta Arau Garapena Bideratzeko Zerbitzuko ordezkari batek parte hartu ahal izango du —iritzia emango du, baina botorik ez— Batzordearen azken bileran, laguntza emateko azal litezkeen gai juridikoetan.

Así mismo, podrá participar, con voz y sin voto, una persona representante del Servicio de Asesoría y Desarrollo Normativo en la reunión final de la Comisión, para asistir en los temas de carácter jurídico que se puedan plantear, a convocatoria de la persona que ejerza la presidencia.

4. Hitzarmena indarrean dagoen bitartean Jarraipen Batzorde hau hitzarmen honetan aurreikusitako egoeretan bilduko da (urtero), eta betiere, aldeetako batek eskatzen duenean eta bilera-eskaeraren arrazoia adierazi ondoren.

4. Durante la vigencia del Convenio, esta Comisión de Seguimiento se reunirá trimestralmente, en los supuestos previstos en el presente Convenio y en todo caso, cuando así lo solicite una de las partes indicando el motivo de la solicitud de reunión.

Batzordea baliozkotasunez eratu dadin, kideen gehiengoa bildu beharko da. Erabakiak gehiengoaren botoez hartuko dira. Berdinketa gertatuz gero, lehendakaritzak bere botoarekin ebatziko du berdinketa gertatuz gero.

El quórum necesario para la válida constitución de la Comisión será el de mayoría de sus componentes, adoptándose sus acuerdos por mayoría de votos. En caso de empate, la presidencia dirimira con su voto en caso de empate.

5. Hitzarmen honetan Jarraipen Batzordearen araubideari buruz beren beregi aurreikusten ez diren kontuetan, kide anitzeko organoen araubidea, Sektore Publikoko Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legeko Atariko Tituluan II kapituluan ezartzen dena, aplikatuko da.

5. En lo no previsto expresamente en este Convenio, sobre el régimen de la Comisión de Seguimiento, le será aplicable el régimen de los órganos colegiados regulados en el Capítulo II del Título Preliminar de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

HOGEITA BOSGARRENA.- AUZIGAIAK

VIGESIMOQUINTA.- CUESTIONES LITIGIOSAS

Hitzarmen honen ondoriozko auziak, horien izaera juridiko administratiboa dela-eta, administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren mende jarriko dira.

Las cuestiones litigiosas que pudieran derivarse del presente Convenio, dada su naturaleza jurídico-administrativa, serán sometidas al orden jurisdiccional contencioso-administrativo.

Eta horrekin guztiarekin ados daudela agertzeko, alderdiek agiri honen bi ale sinatu dituzte goiburuan adierazitako tokian eta egunean.

En prueba de conformidad y aceptación de cuanto antecede, los intervinientes firman el presente documento por duplicado ejemplar en el lugar y fecha expresados en su encabezamiento.

HOGEITA SEIGARRENA.- DATU PERTSONALEN TRATAMENDUA

VIGESIMOSEXTA.- TRATAMIENTO DE DATOS PERSONALES

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: T6RL-F9ZF-J98R-V2UY
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Hitzarmen honi datu pertsonalen babesaren arloan aplikatu beharreko araudia (EB) 2016/679 Erregelamendua da, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2016ko apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa, eta 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa.

La normativa aplicable al presente Convenio en materia de protección de datos personales es el Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo de 27 de abril de 2016 relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de protección de datos personales y garantía de los derechos digitales.

Hitzarmen hau sinatzean, eskura dagoen informazioarekin, ez da aurreikusten erakunde hitzartuek datu pertsonalen tratamendurik egingo dutenik, hitzarmen honetako prestazioak eta betebeharrak gauzatzearen ondorioz. Exekuzioan zehar datu pertsonalak tratatu behar badira, aldez aurretik, berariaz eta idatziz, dagokion egintza juridikoaren bidez ezarri behar dira datu pertsonalak babesteko araubide juridiko aplikagarria arautzen duten jarraibideak.

A la firma del presente Convenio no se prevé con la información disponible que las Entidades Conveniadas vayan a llevar a cabo un tratamiento de datos personales derivado de la ejecución de las prestaciones y obligaciones del presente Convenio . En el supuesto de que durante su ejecución tuviera lugar tratamiento de datos personales se debe de manera previa, expresa y por escrito, establecer mediante el correspondiente acto jurídico las instrucciones que regulen el régimen jurídico de protección de datos personales aplicable.

Hala ere, hitzarmena idazteak, sinatzeak eta geroko zaintzeak esan nahi du erakunde bakoitza ordezkatzen duten eta hitzarmena sinatzen duten pertsonen identifikazio-datu pertsonalak hitzarmena sinatzen duen eta hitzarmenean parte hartzen duen erakunde bakoitzaren tratamendu-erantzukizuna direla, eta tratamendu-arduradun gisa alderdi bakoitzari aplikatzekoak zaizkion betebehar hauen arabera tratatuko direla:

No obstante, la redacción, firma y posterior custodia del convenio supone que los datos personales identificativos de las personas que representan cada entidad y suscriben el convenio son responsabilidad de tratamiento de cada entidad que suscribe y participa en el convenio y serán tratados conforme a las siguientes obligaciones, aplicables a cada una de las partes en calidad de Responsables de tratamiento:

I.- Datu pertsonalak tratatzeko jarduerak baimentzea.

I.- Autorizar las actividades de tratamiento de datos personales.

II.- Tratamenduan zehar aldez aurretik zaintzea, kontrolatzea eta a posteriori gainbegiratzea datuen babesari buruzko araudia betetzen dela.

II.- Velar de forma previa, controlar durante el tratamiento y supervisar a posteriori el cumplimiento de la normativa en materia de protección de datos.

III.- Araudiaren arabera egin beharreko tratamendu-eragiketen datu pertsonalen babesaren gaineko ikuskapenak, auditoretzak eta inpaktu-ebaluazioak egitea.

III.- Realizar las inspecciones, auditorías y evaluaciones de impacto en protección de datos personales de las operaciones de tratamiento que correspondan de acuerdo a la normativa.

IV. Kasuan kasuko aurretiazko kontsultak egitea.

IV.- Realizar las consultas previas que en su caso, correspondan.

V. Datu pertsonalak segurtasun-irizpideen eta DBEOren 32. artikuluan aurreikusitako edukiaren

V.- Tratar los datos personales de conformidad con los criterios de seguridad y el contenido

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: T6RL-F9ZF-J98R-V2UY
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral
herri administrazioko eta erakunde harremanetarako saila
departamento de administración pública y relaciones institucionales
idazkaritza orokorra / secretaría general

arabera tratatzea, eta eskura dituen datu pertsonalen konfidentzialtasuna, sekretua eta osotasuna ziurtatzeko beharrezkoak edo komenigarriak diren segurtasun-neurri teknikoak eta antolaketa-neurriak hartzea. Zehazki, bat dator informazio-sistemen kategorizazioarekin eta segurtasun-neurrien aplikazioarekin, Administrazio Elektronikoaren eremuan Segurtasun Eskema Nazionalari buruzko 311/2022 Errege Dekretuaren arabera

previsto en el artículo 32 del RGPD, así como observar y adoptar las medidas técnicas y organizativas de seguridad necesarias o convenientes para asegurar la confidencialidad, secreto e integridad de los datos personales a los que tenga acceso. En particular, se correspondería con la categorización de sistemas de información y aplicación de medidas de seguridad de acuerdo al Real Decreto 311/2022, del Esquema Nacional de Seguridad en el ámbito de la Administración Electrónica.

VI. Erabateko konfidentzialtasuna izatea hitzarmena gauzatzeko erabil ditzakeen datu pertsonalei buruz, bai eta datu horiek tratatzearen ondoriozkoei buruz ere, datu horiek edozein euskarritan eskuratu direla ere.

VI.- Mantener la más absoluta confidencialidad sobre los datos personales que tenga pudiere tratar para la ejecución del convenio, así como sobre los que resulten de su tratamiento, cualquiera que sea el soporte en el que se hubieren obtenido.

VII. Betebehar hori BFAren eta IVAPen konturako tratamenduaren edozein fasetan esku har dezakeen pertsona orori dagokio, eta erakundeen betebeharra da, halaber, beren mendekotasun organiko eta/edo funtzionalaren pean dauden pertsonei sekretu-betebeharrari buruz eta betebehar horri eusteari buruz irakastea, baita jarduera amaitu edo jarduera utzi ondoren ere.

VII.- Esta obligación se extiende a toda persona que pudiera intervenir en cualquier fase del tratamiento por cuenta de DFB y del IVAP siendo asimismo deber de las entidades instruir a las personas que estén bajo su dependencia orgánica y/o funcional, acerca del deber de secreto, y del mantenimiento de dicho deber aún después de la terminación de la prestación de la actividad o de su desvinculación.

VIII. Datu pertsonalak tratatzeko baimena duten pertsonen zerrenda bat eramatea, eta datu horiek konfidentzialtasuna berariaz eta idatziz errespetatzeko eta dagozkien segurtasun-neurriak betetzeko konpromisoa hartzen dutela bermatzea, behar bezala jakinarazi behar baitizkie.

VIII.- Llevar un listado de personas autorizadas para tratar los datos personales y garantizar que las mismas se comprometen, de forma expresa y por escrito, a respetar la confidencialidad, y a cumplir con las medidas de seguridad correspondientes, de las que les debe informar convenientemente.

IX. Tratamendurako baimena duten pertsonek datu pertsonalak babesteko behar duten prestakuntza bermatzea.

IX.- Garantizar la formación necesaria en materia de protección de datos personales de las personas autorizadas a su tratamiento.

X. Datu pertsonalak hirugarrenei ez jakinaraztea (lagatzea) eta ez zabaltzea, ezta gordetzeko ere, legez gaitutako kasuetan izan ezik.

X.- No comunicar (ceder) ni difundir los datos personales a terceras personas, ni siquiera para su conservación salvo en supuestos legalmente habilitados.

XI. Hala badagokio, tratamenduaren arduradunak datu pertsonalak babesteko izendatutako pertsona fisikoen identitatea eta harremanetarako datuak jakinaraztea, hau da, datu pertsonalen tratamenduaren erregulazioa betetzeaz arduratzen diren pertsonen identitatea, alderdi legal/formaletan eta

XI.- En su caso, comunicar la identidad y datos de contacto de la(s) persona(s) física(s) designada(s) por el responsable del tratamiento a efectos de protección de los datos personales, esto es, la identidad de las personas (s) responsable(s) del cumplimiento de la regulación del tratamiento de datos personales, en las

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: T6RL-F9ZF-J98R-V2UY
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral
herri administrazioetako eta erakunde harremanetarako saila
departamento de administración pública y relaciones institucionales
idazkaritza orokorra / secretaría general

segurtasun-alderdietan.

vertientes legales/formales y en las de seguridad.

XII.- DBEOren 33. artikuluarekin bat etorriz, bere erantzukizunpeko datu pertsonalen segurtasunaren edozein urraketaren berri emango dio kontrol-agintaritza eskudunari, berehala eta 72 orduko epean beranduenez, era berean, datu pertsonalen segurtasuna, osotasuna edo erabilgarritasuna arriskuan jarri duten edo jar dezaketen informazioa tratatzeko eta kudeatzeko sisteman izandako gorabehera edo edozein akats dokumentatzeko eta jakinarazteko informazio garrantzitsu guztia, Halaber, konfidentzialtasuna urra dezake, hirugarren pertsonei kasuan kasuko negozio juridikoa gauzatzean lortutako datuak eta informazioak jakinaraztearen ondorioz.. Horri buruzko informazio zehatza emango du arduraz, baita konfidentzialtasuna zein pertsonak galdu zuten zehaztu ere.

XII.- De conformidad con el artículo 33 RGPD, comunicará en su respectivo ámbito de responsabilidad y en caso de ser necesario a la autoridad de control competente de forma inmediata y a más tardar en el plazo de 72 horas, cualquier violación de la seguridad de los datos personales bajo su responsabilidad de la que tenga conocimiento , juntamente con toda la información relevante para la documentación y comunicación de la incidencia o cualquier fallo en su sistema de tratamiento y gestión de la información que hayan tenido o puedan tener que ponga en peligro la seguridad de los datos personales, su integridad o su disponibilidad, así como cualquier posible vulneración de la confidencialidad como consecuencia de la puesta en conocimiento de terceras personas de los datos e informaciones obtenidos durante la ejecución del negocio jurídico correspondiente. Comunicará con diligencia información detallada al respecto, incluso concretando qué personas interesadas sufrieron una pérdida de confidencialidad.

XIII. Pertsona fisiko batek datuen babesaren arloko eskubideren bat (datuak eskuratzea, zuzentzea, ezabatzea eta aurkaratzea, tratamendua mugatzea eta banakako erabaki automatizatuen edo araudi aplikagarriak aitortutako beste batzuen xede ez izatea) egikaritzen duen kasu bakoitzean indarrean dagoen araudiak eskatzen duenaren arabera erantzutea.

XIII.- Atender conforme exige la normativa vigente cada supuesto en el que una persona física ejerza uno de los derechos en materia de protección de datos (acceso, rectificación, supresión y oposición, limitación del tratamiento y a no ser objeto de decisiones individualizadas automatizadas, u otros reconocidos por la normativa aplicable).

XIV. Segurtasun-arrakalak (lortuak eta saiatuak) agintari eskudunei edo pertsona interesdunei segurtasun-, komunikazio- eta/edo jakinarazpen-neurrien arloan dagozkien betebeharrak betetzea, eta, hala badagokio, egoki diren inpaktu-ebaluazioak egitea.

XIV.-Cumplir con sus respectivas obligaciones en materia de medidas de seguridad, comunicación y/o notificación de brechas (logradas e intentadas) de seguridad a las autoridades competentes o las personas interesadas, y realizar, en su caso, las evaluaciones de impacto que sean pertinentes.

XV. Idatziz, baita formatu elektronikoan ere, eta DBEOren 30.2 artikuluarekin bat etorriz, egindako tratamendu-jardueren kategoria guztien erregistro bat eramatea, gutxienez artikulu horretan aipatutako inguruabarrak jasotzen dituena. Ildo horretatik, erregistro horretan informazio hau jasoko da:

XV.- Llevar, por escrito, incluso en formato electrónico, y de acuerdo con el artículo 30.2 del RGPD un registro de todas las categorías de actividades de tratamiento efectuadas que contenga, al menos, las circunstancias a que se refiere dicho artículo. En este sentido, este registro contendrá la siguiente información:

- Hitzarmena egin den pertsona fisiko edo

- -Nombre y datos de contacto de la

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: T6RL-F9ZF-J98R-V2UY
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

juridikoaren izena eta harremanetarako datuak.

- Egindako tratamenduen kategoriak.

- Segurtasun-neurri teknikoen eta antolaketa-neurrien deskribapena, aplikatu behar izanez gero, honako hauei dagokienez:

• Seudonimizazioa eta datu pertsonalen zifratzea.

• Tratamendu-sistemen eta zerbitzuen konfidentzialtasuna, osotasuna, erabilgarritasuna eta erresilientzia iraunkorra bermatzeko gaitasuna».

• Gertakari fisiko edo teknikoren bat gertatuz gero, datu pertsonalen eskuragarritasuna eta sarbidea azkar lehengoratzeko gaitasuna».

• Tratamenduaren segurtasuna bermatzeko neurri teknikoen eta antolakuntzakoen eraginkortasuna egiaztatzeko, ebaluatzeko eta balioesteko prozesu erregularra.

XVI. Datu pertsonalak babesteko araudia eta erantzukizun aktiboaren betebeharra betetzen direla frogatzen duten ebidentziak edukitzea.

XVII. Informazio-eskubidea: bi erakundeek, datuak biltzeko unean, egingo diren datu-tratamenduei buruzko informazioa eman behar dute.

XVIII. Klausula hau eta hemen ezarritako betebeharrak dira hitzarmen honen inguruko datu pertsonalen tratamendua arautzen duen egintza juridikoa. Hemen jasotzen diren betebeharrak eta prestazioak ezin dira hitzarmen honetan aurreikusitakotik aparte edo modu gehigarrian ordaindu, eta hitzarmen honen xede den prestazioaren iraupen bera izango dute, eta, hala badagokio, hitzarmen honen aldi berberetan luzatuko dira. Hala ere, hitzarmena amaitzen denean, sekretu-betebeharrak indarrean jarraituko du, denbora-mugarik gabe, prestazioa gauzatzen parte hartzen duten pertsona guztientzat.

persona física o jurídica con la que se realice el convenio.

- - Categorías de tratamientos efectuados.

- - Una descripción de las medidas técnicas y organizativas de seguridad, en caso de que proceda su aplicación, relativas a:

• Seudonimización y el cifrado de datos personales.

• La capacidad de garantizar la confidencialidad, integridad, disponibilidad y resiliencia permanentes de los sistemas y servicios de tratamiento.

• La capacidad de restaurar la disponibilidad y el acceso a los datos personales de forma rápida, en caso de incidente físico o técnico.

• El proceso de verificación, evaluación y valoración regulares de la eficacia de las medidas técnicas y organizativas para garantizar la seguridad del tratamiento.

XVI.-Disponer de evidencias que demuestren su cumplimiento de la normativa de protección de datos personales y del deber de responsabilidad activa.

XVII.- Derecho de información: Ambas entidades en el momento de la recogida de los datos, deben facilitar la información relativa a los tratamientos de datos que se van a realizar.

XVIII.-La presente cláusula y las obligaciones aquí establecidas, constituyen el acto jurídico que regula el tratamiento de datos personales que se articula en torno al presente Convenio. Las obligaciones y prestaciones que aquí se contienen no son retribuibles de forma distinta u adicional a lo previsto en este convenio y tendrán la misma duración que la prestación de objeto de este convenio prorrogándose en su caso por períodos iguales a éste. No obstante, a la finalización del convenio el deber de secreto continuará vigente, sin límite de tiempo, para todas las personas involucradas en la ejecución de la prestación.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: T6RL-F9ZF-J98R-V2UY
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

XIX. Hitzarmena formalizatu ondoren, eta hura gauzatzen ari den bitartean, hitzarmenean ezarritakoa aldatu edo egokitu behar bada, bi erakundeek adierazi beharko dute zer aldaketa eskatzen dituzten aldatzeko edo egokitzeko. Bi erakundeak eskatutakoarekin ados badaude, dokumentu eguneratu bat egingo da, tratamenduaren xehetasunak zehatz-mehatz jasoko dituena.

XIX.- Si una vez formalizado el convenio y durante la ejecución del mismo resultara necesario modificar o adaptar lo estipulado en el mismo, las ambas entidades señalarán los cambios que solicita modificar u adaptar. En caso de que ambas entidades estén de acuerdo con lo solicitado, se emitiría un documento actualizado que recoja fielmente el detalle del tratamiento.

LORRA S. KOOP.REN IZEN ETA ESKUORDERTZAN

EN NOMBRE Y REPRESENTACIÓN DE LORRA S. COOP.

INGURUNE NATURALA ETA NEKAZARITZA SUSTATZEKO SAILEKO FORU DIPUTATUA

LA DIPUTADA FORAL MEDIO NATURAL Y AGRICULTURA.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: T6RL-F9ZF-J98R-V2UY
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral
herri administrazioko eta erakunde harremanetarako saila
departamento de administración pública y relaciones institucionales
idazkaritza orokorra / secretaría general